

KONTROL MOZIOA

ERREFUS-EDUKIONTZI TXIP-DUNA DELA ETA

Axier Jaka Goikoetxea EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017ko martxoaren 20an, Gune Publikoko batzordean aztertutako “Errefusaren bilketa” interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren hasieran, hiri hondakinen batzorde ez-iraunkorraren lanaren baitan, Gironan egindako “Waste in progress” nazioarteko foroan parte hartzeko aukera eman zitzaigun. Bertan, Europa, Ipar Amerika zein Asiako zenbait hiri ertain eta handitako hondakin-kudeaketa ereduak ezagutzeko aukera izan genuen. Gure aldetik, honako ondorio hauek atera ditugu:

1. Bilketa-sistema mota bezain inportantea dela hondakin-fiskalitate eredu.
2. Hondakin-tratamenduan errausketa ezartzeak herritarren kontzientziazioan eta motibazioan negatiboki eragiten duela; baita, ondorioz, hiri hondakinen gaikako bilketa tasetan ere.
3. Komunikazio-sentsibilizazioan iraunkorki inbertitu behar dela erakundeetatik herritarren kontzientziazioa eta praktika egokietan laguntzeko.
4. Errefusaren bilketa ondo erregulatzeak gaikako bilketa mailak asko hobetu ditzakeela, baita dentsitate urbano handiko hiri handietan ere.

Laugarren ondorio honi lotuta, geure ustez, ondo baloratzen ditugun egungo edukiontzien birkokapena aztertu eta Hondakinen Zuzendaritza Plan bat idazten hasteaz gain, hiriko hondakinen bilketaren alorrean pauso gehiago eman daitezke eta eman behar dira. Batik bat organikoaren eta errefusaren bilketan. Organikoaren bilketari dagokionez, azken hilabeteetan jasotako organiko tona kopuruan (aurreko urtearekin alderatuta) jaitsiera bat izan omen da; seinale txarra, hondakinei dagozkien plan, lege eta zuzentarauak bete eta iraunkortasunean aurrera egin nahi badugu.

Errefusari dagokionez, nabarmentzekoa da 2015eko ekainean, Donostiako PNV eta PSEk sinatutako 2015-2019 Gobernu Akordioen 92. edo 94. orrialdeetan, hondakin-errefus zatikia murrizteko eta birziklatze eta konpostatze tasak hobetzeko helburuarekin “errefusarentzako txip-dun edukiontzia” ezartzearen aukera aztertzeko konpromisoa hartu zutela. EH Bildutik bat egiten dugu proiektu honekin eta ez dugu ulertzen zergatik ez den oraindik ere aurrerapausorik eman bide honetan. Are gehiago, ikusita Gipuzkoan bertan - Sasieta Mankomunitatean eta hainbat udalerritan (Olaberria, Beasain edo Ordizia)-dagoeneko sistema hau bultzatu edo ezarri dutela eta bilketa-tasak asko hobetzen direla frogatu dutela.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

Izan ere, Gironan egindako “Waste in progress” nazioarteko foroan ikusi genuen bezala, posible da, hiriko errefus depositua kontrolatuz gero, gaikako bilketa tasa altuak erdiestea, baita hiri ertain eta handietan (Ljubljanan, 280.000 biztanle eta %66ko tasa; Parman, 200.000 biztanle eta %80ko tasa, edo-eta San Franciscon, ia milioi bat biztanle eta %80ko tasa).

2015eko abenduaren 14ko Gune Publikoaren batzordean, proiektu honetaz interpelatuta, erantzun zitzaigun ez zegoela aurreikusia 2016. urtean txip-a ezartzea errefus edukiontzietan. Duela hiru hilabete 2017an sartu ginenez eta Gironan ikasitakoa abiapuntu, 2017ko martxoaren 20ko batzordeetan proiektu honen ezarpenaz galdetu genuen berriro ere: Udal Gobernutik erantzun zitzaigun bat egiten zutela, birziklatzeko tasak hobetzeko, errefus zatikian esku-hartzearekin eta, zentzu horretan, Sasietako esperientzia ezagutu eta edukiontzien ikerketaren 2. fasean, besteak beste, errefus edukiontzi txip-dunaren bideragarritasuna ere aztertze konpromisoa hartzen zutela.

Positiboki baloratzen dugu konpromiso horiek hartu izana, baina uste dugu errefus edukiontzi txip-dunaren balorazio erreal bat egiteko beharrezkoa dela 2. fase horretan ikerketa integral bat egitea, zerbitzu berri honen inplementazioaren eta mantenimenduaren aspektu guztiak aztertuko dituen; hala nola, baliabide material eta teknologikoetan, finantzazioan, antolamenduan eta hiri hondakinen bilketa eta tratamenduaren balantze ekonomiko orokorrean izan dezakeen eragina. Horrekin batera eta ikusita ia legegintzaldiaren erdian gaudela, aurrerapausorik eman nahi bada agintaldi honetan, 2017. urte amaierarako ikerketa-txostenak aurkeztua eta guztion artean baloratua behar duela uste dugu. Horiek horrela, hauxe da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, Gobernu Akordioan jasotzen duen errefus-edukiontzi txip-dunaren ezarpena aztertze konpromisoaren betekizunean, azterketarako ikerketa tekniko integral bat enkargatu eta 2017a amaitu baino lehen Hiri Hondakinen Batzorde ez Iraunkorrean edo udalbatzako talde politikoei aurkez dezala.

Donostian, 2017ko martxoaren 24a



Axier Jaka Goikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia